

BASERRI-GAIAK

1) **EPAILLEZ.** — H oneri, Bizkaia'n *martia* deritxogu, ta beste leku askotan *epaila*. Negu agure zar otzez asean — euri ta edur, txingor ta izotz — ba-*doan* joan apurka apurka: eguna luzatuz eguraldi epela, orrela laster dogu uda berrira; egia, Gorbea, Anboto, Oiz ta Aizkari txapel zuri oraindik: baiña, itxoin arei irri gozo egiñez, laster doguz zelai, ibar-ertz eta muiñoak lorez jantzita. Alan be, martiko lorak ez ei dira onak; ona zer diñoan esakun zarrak: «Martiko lorea, ez-palitz obea». Aprilekoa, barriz, ona: «Aprileko lorea, urrea baiño obea». Eguzkiak be, argi-izpi bigunez ziztatzen gaitu, baiña ez dira antza ain onak bere loxinga txeratsuak: «Osasun» gura ba-*dozu*, martiko eguzkia kontuz artu.

Etxe-lanak. H onek be, ene baserritar, gogortxo ba-*litz* beinik-bein, ez dautzu etxetik kanpora urtetan itxiko. Ba-*dozu*, alan be, barruan sukalde, ganbara, korta edo ukulu, oillotoki, ardoki ta abar, nun zeri oratu. Gaur, dakizunetz, oillo ta paitak asko emoten dautzuen ezkeru, ekin gogotik arlo orreri. Zeregin aundi barik diru-mordo ederak eskuratu oi dabez or-emen. Oraintxe dozu garairik egoki ta aukerakoena txitak atarateko. H ontako oillaskoak onenak dirala, nok ez daki?

Solo-lanak. Onetzkeru, solorako tranankuluak garbiturik eta prest eukiko dozun. Arto-erkiten laster asi hearka, ta ez egon nagi: garbitu erein bear *dozuzan* lurrak. Sekulebedar, pagotx eta alpapa ereiteko, oraintxe dozu garai ederra. Lendik landa-

tuak jorratu ta San Juan *lur sagar* edo patatak ipinteko be, sasoi egokiena.

2) **JORRAILLEZ.** — Gizonok ba-*doguz* leia biziak geuru biotz barranean: mendi, tentorrera eldu naita, arako bide dagigunean, esaterako, zein biziro opa dogun an goiko aizean arnasa artzea. Negu gogorra, mendi erpiñeraiño garoazan zidor luzea dala, esan bear; nekearen nekez egin oi dogu bertoko ibiltaldia. Baiña bein amaira ezkeru, poz-erkitan gagoz. Amaitu yaku, bai, negu-aroa: or aprilla, ikuskizun eder-lillu-ragarritz. Noizik bein, orraitaiño, agertu oi dau oindiño mutur baltza negutxo kaskarrak. Augaitik esan daroe: «Aprilleko eguraldiaz eta ostatuko neskez, kontuz ibilikoz az».

Etxe-lanak. Kortako abereak zaindu al bait eta arduratsuen: berde apur bat janariari nastutea egoki da garai onetan. Oillotoki ta inguruak garbi euki: paita-txitak aterateko, sasoi ona. Igali-zugatzak arduraz txukundu; hai ta kexeta, aran, madari, sagar ta onakoak ezitu edo txertatu be.

Solo-lanak. Baserritarrok, noz-nai dozun lana. Baiña bateren bat aurreko illetan sartor antzera etxe-zokondoko epeletan egon ba-*da* be, orain izango dau nun egin ta zeri ekin. Lur sagar, udarbi (erromalata)-uroza (letxuga), aurretik erein ez-palitz-erein arin-arin; hai ta rabano ta arbi txikiak be, lur zabalean. Baiña arduratu zaitetz, beste arazo guztien gaiñetik, il onen azkeneruntz ereiteko arto-soloak gertatzen. «Deun Jorki, artoak ereiteko goizegi; Deun Markos, ereinda ba-*legoz*».